

FONTES  
LINGVÆ VASCONVM  
stvdia et  
docvmenta



SEPARATA

Año XLIV • Número 114 • Enero-Junio • 2012

Bi testu llabur Aezkoa eta Zuberoako:  
Garralda (1828) & Larraine (1817)

IÑAKI CAMINO

# Bi testu llabur Aezkoa eta Zuberoako: Garralda (1828) & Larraine (1817)

IÑAKI CAMINO\*

GARRALDA 1828

**N**egu gorrian, urtarril-otsailetan josten ikasteko herriko neska gazteak jostunaren etxera biltzeko ohitura izan da Aezkoa ibarrean, beste hainbat eskualdetan bezala, guk uste. Errosario garaian bukatuko zen eskola eta orduantxe eginen zizkieten mutilek neskei beren azioneak: elur muiluak jaurtikitzea, neskakoak abeltegian piza egiten totoriko zeudenean mutikoek bertan ezkutaturik so egitea eta abar. Egunez ikasitako joskintza lantzen jarraituko zuten afalondoan, norbaiten etxean; neguan zen hori, udaberriak bere lanak baitzekartzan eta esku guztiak behar ziren etxean laneko.

Nafarroa Garaiko Aezkoa ibarrean, Garralda herrian, gauazko ibilerengatik kargu hartu zien apezak herriko gazteei 1828 urtearen hasieran: neskak gauaz etxe batzuetara biltzen zirela, herriko mutikoak ere inguratzen zirela, lehen letretako herriko maisua ere Jakesenera bildu ohi zela gauaz, emaztekiei irun bitartean kristau ikasbidea erakusteko estakuruan, eta apezak ez zuela hau batere gogoko, mutilak nesken laguntzen gau beranduan ibiltzen zirela, gazteak harri ukaldika herriko bakea hondatzen aritzen zirela, herriko ostata legeak agintzen zuen baino beranduago hersten zutela... oro kexu eta arrenkura zen apeza. Nolanahi ere den, apezaren arrenkura horiei laster erantzuna etorri zitzaien.

1828ko otsailaren 29ko gauean, gerora iskanbila eragin zuen ekintza bat egin zuten herrian. Ezezagun batek Javier Loperena izeneko apezaren etxekeo saihets batean idazki bat ezarri zuen; apezak ez bide zuen batere gogoko tes-

\* EHU/UPV.

Saio hau EHU/UPV-ren *Lingüística teórica y diacrónica: gramática universal, lenguas indoeuropeas y lengua vasca* UFI 11/14 ikerketa egitasmoaren barrenean kokatzen da.

tuak zioena. Euskaraz idatzia den orri horretan apezari leporatzen zitzaion herrian nahaskeria franko eragiten eta *gerla inmiten* ari zela, haur eta neska-koei bezala herritarrei irri eta iseka egiten ari zela. Idazkiaren hondarrea, berri, ongi predikatzeko galdegiten zaio apezari; metaforikoki edo, adierazten zaio erresponsuak eta elizako olatak ostatuan *tripan pasatu*-ko dituztela.

Orriaren egile-idazlea nor izan zen jakin nahirik, salaketa ezarri zuen apezak Aezkoa ibarreko batzordean, Juan Angel Iturburu gerra kapitain eta alkate zelarik; apezak adierazten zuen, ekintza honen bidez bera eta gure Askatzailearen erlijioa eskandalagarriki mespretxaturik gertatu zirela. Apezak salaketan dioenez, mendeku hura berak herriko bizio eta eskandalu nabarmenak salatu izanaren ondoriozko jokabidea zatekeen. Zuzenbideko agintariak gertatuaren lekukotasuna eskatu ziotenean, zuen adinaren berri ere eman zuen apezak: 32 urte.

Gatazka hura zela eta, martxoaren 2an apezak Garralda herriko errejidore edo zinegotziari eskatu zien beren eginbeharra betetzeko. Jaun haiek bi egunen buruan erantzun zioten: gaia ez zela beren eskumenekoa zioten eta ohorea galdu zuenari zegokiola ohore hori berreskuratzea. Susma daitekeen bezala, Garraldako errejidore edo zinegotziak ez bide zekiten orriaren idazlea nor zen, ez bide zuten lortu nor izan zen jakitea. Honela, barrena sutan edukitzea behar zuen apezaren salaketa Iruñeraino iritsi zen, *Fiscal y Subdelegado Principal de Policía de este Reyno* instantziarengana.

Zorroztasun handiz Iruñeko agintariak Garraldako jendeak Aezkoako Batzordeko agintarien eta beste batzuen aitzinera lekukotasuna ematera deitu zituzten: 50 gizon-emazteki baino gehiago galdezkatu zituzten orri haren idazlea edo ezarlea nor izan ote zitekeen jakin nahirik. Herriko lekukoak banan-banan ageri dira auziaz zekitenaren berri ematen [non ez ziharduten zekitenaren estaltzen]: nekazari, etxeoandere, ehule, ahuntzain, txertzain, sarrailagile, zurgin, zirujau... lekukotza ematen aritu ziren Jose Maria Arrieta izeneko baten aitzinean<sup>1</sup>. Abaurrepeko Miguel Antonio Sario apezka eta José Mariano Ezponda izeneko beste apez bat ere galdezkatu zituzten. Ezaguna dugu Sario hau lehen ere, haren izena eta 1794ko data ageri dira Bonapartek erdietsi zuen Abaurrepeko euskarazko kristau ikasbidean.

Auziaren dokumentazioa irakurriz argi eta garbi ageri da ez zela argitu apezaren etxean orria idatzi zuena nor izan zen, Auritzen, Garaioan edo Hiriberrin galdezka ibili baziren ere; herriotako maisuei galdegiten zieten ea idazkiko letra norena izan zitekeen, baina apezak ez bide zukeen aldeko salatzailerik izan, nonbait.

Auziak alderdi are gogorragoratu jo zuen eta hiru zinegotzi garraldarrek lehenik Garraldako eta ondotik Iruñeko gartzelako itzala ezagutu zuten. Fiskalak auzi «kriminala» ireki zuen Pedro Miguel eta Miguel Andres Juanperez eta Joaquin Jayre Garraldako errejidore edo zinegotzi zirenen aurka. Galdeketen ondotik, hiru urte lehenago zinegotzi izan ziren Simon Larrañeta eta Lorenzo Loperena ere auziperatu zituzten; nonbait, bi lagun

<sup>1</sup> Garraldako lekukoen deiturak dira honakoak: Abaurrea, Abentin, Alkatearena, Arandoi, Aros-tegi, Arriola, Barberena, Elizagarai, Gartzia, Gartziazelai, Hiribarren, Hirigoien, Jaire, Jaunarena, Juan-gartzia, Juanperez & Juanperitz, Larrañet, Laurentz, Leranotz (Arnegin sortua), Lerindegi, Loperena, Lujeta, Martin (?), Minondo, Pedrorena, Rekalde, Rota, Sarrasin, Zelai. Garraldako apezaren gelaria ere galdezkatu zuten, Orbaizetako Maria Salvador, 21 urteko ezkongabea.

hauek zinegotzi izan ziren garaian isilpean gorde bide zuten, plazan herriko gazte batzuek gizon garraldar bat sudurrean eta besoan harrikatu zutela eta ondorioz, 20 egunez edo hilabete batez ohean etzanik egon behar izan zuela; Martin Antonio Laurentz zen, «Domenech» izeneko etxekoa, egun *Domentxoina* deitzen denekoa; Jaire zinegotziak ez zuen gogoan gertakari hau: *no hace recuerdo de las pedradas*.

Hartara, apezaren alde jokatu ez zutelako, batzuek eta hiru urte lehenago harri ukaldiak estalgunean gorde izanagatik, besteek, dirutan zigorrak izan zituzten: Pedro Miguel Juanperezek hamabost libra, Miguel Andres Juanperezek eta Joaquin Jayrek hamarna libra eta Simon Larrañetak eta Lorenzo Loperenak bosna libra. Txanpon zahar hau 60 marabedi nafarri zegokion, edota bestela esanik, 3 erreal eta 6 marabediri. Auzipetu bakoitzaren ondasunen berri ere galdezkatu zuten Garraldan, Miguel Fermin Barberenak aitortu zuen Pedro Miguel Juamperezen azienda «superabundante» zela. Fidantzak ere ordaindu ziren askatzeko; Pedro Miguel Juamperezena Vicente Laurentzenak eta Esteban Zaraguetak ordaindu zuten. Zinegotzietan eskatu zitzaizkien aurrerantzean zorrozki zaintzeko herriko ostatua zein ordutan hersten zen eta ez berriz beren zereginak saihesteko.

Javier Loperena Garraldako apez hau lehenago ere ezaguna genuen. 1862-1865 bitartean izen hori bera zuen Garraldako apez batek Asteteren katixima euskaratu zuen Bonaparte printze eta hizkuntzalariak halaxe eskaturik. Ezaguna genuen Javier Loperena apez hau Orbaizetan sortu zen, *Arlakoan*, Arriola izeneko etxean hain zuzen ere. Aitetamak ere orbaizetarrek zituen Loperena honek eta honela zuen izena osorik: Joaquín Javier Gregorio Loperena Iturralde, 1796ko maiatzaren 12an sortua eta Garraldan 1867ko abenduaren 12an hila.

1828ko auzi honetako partaidea eta 1862-1865eko urte hasiera bitarte euskal itzulpena Bonaparterentzat egin zuen laguna, Javier Loperena bat eta bera direla argi eta garbi dago, Garraldako iskanbila gertatu zenean Javier Loperena izeneko apezak 32 urteak betetzeko baitzituen; auzia hilabete batzuetan gaindi luzatu baitzen, ekaina arte bai, bederen, aski denbora iragan zen haren urtemuga heltzeko, lekukotasunetan 32 urte dituela baitio. Adin gaztean, 31-32 urterekin, apez hark aski indar eta larderia behar zuen eduki, aurre egin zion Garraldako herriaren aitzinean ez kokiltzeko bezainbat. Dena den, hasieran herritarrekin auzi ahalkeizungarrietan jarduki bazuen ere, luzaz iraun zuen Garraldan. 1865ean oraino Garraldan jarraitzen zuen eta badakigu bi urteren buruan Garraldan berean hil zela, 71 urte zituela; ematen du orbaizetar honek bere apez bizi guztia edo gehiena Garraldan egin zuela.

Euskal testua, gauaz apezaren etxean ezarri zuten hura, auzitara eraman eta gaztelaniara itzularazi zena, llaburra da eta Aezkoako berezko mintzoan emana da; apezarendako izanik, berorika idatzia da. Nafarroako Artxibategi Nagusian dago: fajo 2.º número 7, Proceso criminal del Sr Fiscal contra Pedro Miguel y Miguel Andres JuanPeréz y Joaquin Jayre Regidores del Lugar de Garralda sobre Un Pasquin puesto en la casa del Abad. Sentencia de año 1828; zenbakia 195951 du eta eskribaua Antonio de Heza da.

Euskal idazki hau Aingeru Irigaraik duela 41 urte argitaratu zuen, 1971n, *Noticias y viejos textos de la «lingua navarrorum»* liburuan, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia, 49-51.

Jarraian euskarazko idazkiaren transkribapena dakargu, apezaren etxean ezarri zuten orri hura bera baitago, dirudienez, auzi honen dokumentazioan, ongi gorderik. Halaber, peko alderdian gaztelaniazko itzulpena ezarri dugu, garai hartan egina; ez dakigu nork egina den erdal ordaina, baina dokumentazioan honela heldu da. Itzulpena aski literala dela dirudi, batzuetan kalterako; ez dirudi itzuli zuenak interpretazio bikaina egin zuenik. Gaztelaniazko hitzen zatiketa egungo eran dakargu, baina euskal testuarena ez: hitzen zatiketari dagokionez, heldu den bezala transkribatu dugu euskarazko orria.

### Garraldako testua

Abade Jauana araciobat berdu aitu hori becala  
 enredadore<sup>2</sup> ecta erigontan sartu horei becanbat  
 pleitu garaldaco erian ezta forjatu hizandira  
 apezac ete badi<sup>ra</sup> hori becala<sup>la</sup> ez enredaceco ete eri  
 gon<sup>tan</sup> familien ongui bicidiren gerla inmiteco  
 nescaco eta arruquin beca neidu iri eta bur-  
 la ein. baia eztu gori pasatuco obequi ei<sup>1</sup>le-  
 zaqui babatugabe corona resalbacendut  
 ejemplo onac eman eta ongui predicatu ongi<sup>3</sup>  
 gala bearneibadu eresponsua eta ola taba-  
 rnan beartugu tripan pasatu  
 gaudaie Abadien onoretaco

### Itzulpena

Señor Abad una razon ha de oir vmd un enredador como vmd. no ha entrado en este lugar, en el que no han introduzido tantos pleitos como se han forjado / ha habido curas y los hay, pero como vmd. para enredar no en este pueblo; para poner guerra emtre las familias que viven vien; como con chicas y Criaturas quiere vmd reirse y hacer burla pero no lo pasará vmd eso; mejor haria vmd. sin balbucese salbando à vmd la Corona dar buenos egemplos y predicar bien, si así quiere vmd los resposos y las obladas pasaremos por las tripas en la taberna.

Nafarroako Artxibategi Nagusiko auzi honen dokumentazio luze eta aberatsak euskal testuaren bigarren bertsio bat dakar: apezaren etxean ezarri zuten orri hura bera ez, testu hartaz norbaitek egin zuen kopia baizik. Adierazi behar da kopia hau egokiagoa dela jatorrizko orriak dakarren testua baino, beharbada, gautxori garraldar ezezagun hark baino, kopiagileak idazteko ohi-tura gehiago zuelako. Honela dio euskal orri haren kopiak:

Abade jauna, arracio bat beardu aitu hori bezala enredadore està erri-gontan sartù horaybezambat pleitu garraldacoerrian ezta forjatu hizandira apezac ete badirá hori bezala ez enredazeco eta errigontan familien ongui vicidiren guerla imiteco, nescaco eta aurrequin becala neiduburla ein. baiaeztu gori pasatuco, obequi ein lezaque babatugabe corona resalbacendut ongi egemplo onac eman eta ongui predicatu, gala veabarbinbadu errespon-suac eta olatac tavarnan beartugu tripan pasatu.

<sup>2</sup> Hitzaren lehen *e-* hori ez da ongi irakurtzen, listariak papera hortxe zulatu baitu.

<sup>3</sup> Baliteke lerroa baino goraxeago dagoen *ongi* hitz hori, *predicatu* aditzaren adizlaguna izatea, nahiz aditz honek ezker baduen adizlagun hau bera ere; aldiz, *resalbacendut ongi ejemplo onac eman* egi-tura harrigarri eta ezohikoagoa litzateke.

Alkate zaharrenak euskal testuaz egin itzulpena ere badakar dokumentazioak, baina lehenagoko erdal itzulpen bera da, hark dituen arazo guztiak dakartza honek ere:

Señor Abad una razon há de oir vmd un enredador como vmd no há entrado en este lugar, en el que no han introducido tantos pleitos, como se han forgado; há havido curas y los hay, pero como vmd para enredar no en este pueblo, para poner guerra entre las familias que viven vien; como con las chicas y criaturas quiere vmd reirse y hacer burla, pero no lo pasará vmd eso, mejor haria vmd sin balbucese, salvando a vmd la Corona, dar buenos ejemplos y predicar bien, si asi quiere vmd, los responsos y las oblasdas, pasaremos por las tripas en la taberna.

### Balizko interpretazio bat

Ezinbestean, arrisku eta indeterminazio maila handi bat onetsi beste biderik ez dugularik, hau da gure interpretazioa, esanahia nahi genukeen baino zabalxeago eta lausoago utzi behar badugu ere:

Abade jauna: arrazio bat behar du aitu, hori bekala enredadore ezta herri gontan sartu; orei bekanbat pleitu Garraldako herrian ezta forjatu; izan dira apezak eta badira, hori bekala, ez enredatzeko, eta herri gontan, familien ongi bizi diren, gerla imi(n)teko, neskako eta haurrekin bekala, nehi du irri eta burla ein, baia eztu gori pasatuko; hobeki ein lezake babatu gabe korona, resolbatzen dut ejemplo onak eman eta ongi predikatu (ongi), gala behar, nehi badu, erresponsua eta olata tabarnan behar tugu tripan pasatu.

Gau daie abadien onoretako

Nabarmena da zenbait alderdi ilunsko gelditzen direla: esaterako, *babatu*, *korona* eta *resolbatzen* hitzak, eta bestalde, zail da sintagma batzuk non hasten diren eta non bukatzen diren ziurtasunez jakitea, orrian ez baitago ia puntuaziorik. Berebat, bada haplologia bat edo beste testuan eta inoiz hitzen pusketak lerroaren goitiko aldean idatzi dira. Halaz guztiz ere, aski ongi ulertzen da apezari eman nahi zaion mezua: arrazoi bat entzunarazi nahi zaio apezari, herrian nahasmena eragiten ari delako eta Garraldan ordura arte ez bezainbat auzi sortzen ari delako. Ordura arteko apezek ez dute halako auzirik sortu, ongi eta xuxen bizi diren familietan ez dute gerlarik eragin; aldiz, apez honek neska gazteekin eta haurrekin gatazkak izan ditu, iseka egin die, irri egin du haien leptok, baina ez da hori gehiago gertatuko. Apezari aholkatzen zaio koroan haguna edo lerdea jariatzen ibili beharrean (hondarreko zati hau ez da batere ziurra, ez dago argi), aholku onak eman ditzala eta ongi predika dezala; hala beharko duela egin, bestela, hala nahi izatekotan, hilen aldeko otoitzak eta Elizara eraman ohi den olata edo ogi zatia, ostatuan tripatik iraganen dituztela mehatxatzen zaio.

Morfologian, *familien ongui bicidiren gerla inmiteco* horretan, ez legoke ezintasunik, genitibo hutsak adiera destinatiboa leukake, euskara zaharrean legez, egun ere Aezkoan ohi denez eta beraz, «ongi bizi diren familientzat» edo «ongi bizi diren familietan gerla ezartzeko» uler liteke. Erlatibozko *familien ongui bici diren* ez da batere egitura ezezaguna egungo Aezkoan, euskara zaharrean perpaus erlatiboaren burua ezkerrean agertzea ohikoa zen, Beriain itzarbeibartarrak halaxe zekarren. Gure eskualdean, Zuberoa, Erronkari,

Zaraitzu eta Aezkoan ageri da; hona Zuberoako adibide bat: *dohain natura gaintitcen dian bat* (1706: 58). Bestalde, *inmiteco* hori «iminteko» da, baina aetzen ahoan inoiz *inmiten* & *inmiteko* entzun dugula aitortu behar dugu.

Ez dakigu *babatugabe corona* horretan zer ulertu behar ote den: lerdeaz koroa ez zikintzeko eskatzen zaion, ala bere hatsarreen lerdea herrian gainti jariatzen ez ibiltzeko eskatzen zaion. Aingeru Irigaraik *babatu* hori «pasatu» interpretatu zuen. Aldiz, balirudike *resalbacendut* horrek «resolbitu» edo «erresolbitu»-ren kutsua hartzen duela, hau da, ‘erabakitzen dut’-en antzeko zerbait, baina itzulpenean «koroa salbatzeaz» dihardu interpretazioa egin duenak; ez jakin xuxen nola izan daitekeen.

Jarraian testuan ageri denaz hizkuntza ohar eta datu batzuk dakartzagu:

Euskal hitz edo aldaerak: *apez* ‘apaiza’ / *arrazio* ‘arrazoia’ / *haur* / *baia* ‘baina’ / *bat* / *behar* / *bekala* ‘bezala’ / *bekanbat* ‘bezainbat’ / *herri* / *eta* / *ez* / *gabe* / *jaun* / *neskako* ‘neskato gaztea’ / *hobeki* / *olata* ‘Elizara eraman ohi den ogi zatia’ / *on* / *ongi* / *orei* ‘orain’.

Aditzak: *aitu* ‘aditu’ / *bizi* / *ein* ‘egin’ / *eman* / *imini* ‘ezarri, ipini’ / *irri* *egin* / *izan* / *nei* ‘nahi’ / *sartu*.

Aditz ezezaguna: *babatu*; ez dakigu ‘haguna’ edo ‘lerdea’ jariatzea adierazten ote duen; erdal itzulpenak ‘balbucese’ dakar, baina ez dago zertan pentsatu itzultzaileak orriaren egileak zeukan asmoa xuxen interpretatu zuenik; honekin ez dugu adierazi nahi gure interpretazioa sendoa denik ere, zati hori ez dago batere argi; guk segurik, ez dugu *babatu* hitza entzun Aezkoan.

Mailegu berriskoak: *abade* ‘maila goraxeagoko apez’ / *burla ein* ‘iseka egin’ / *ejemplo* ‘adibidea’ / *enredadore* & *enredatu* ‘nahasle & eratzarki nahasi’ / *erresponso* ‘hilei egin ohi zaien otoitza’ / *familia* / *forjatu* ‘sortu’ / *gerla* ‘gerra’ / *korona* ‘koroa’ / *onore* ‘ohorea’ / *pasatu* ‘iragan’ / *pleitu* ‘auzia’ / *predikatu* ‘apezaren meza denborako hizketaldia’ / *resalbatu* (?) / *tabarna* ‘ostatua, taberna’ / *tripa* ‘sabela’.

Erakusleak: *gau* ‘hau’ & *gori* ‘hori’ & *ori* / *gontan* ‘honetan’ / *gala* ‘hala’.

Adizkiak

Izan: *ezta* / *dira* & *badira*.

Edun: *du* & *eztu* & *badu* / *dut* / *tugu* ‘ditugu’.

\*Ezan: *lezake*.

Joan: *daie* ‘doa’.

Leku izenak: *Garralda*.

Garbi dago testua garraldar batek orduko herriko euskarari idatzia izan daitekeela. Ugari dira hango mintzoaren ezaugarriak gauaz ezarri zen orri hartan:

*ai* > *ei* palatalizazioa ageri da bokaletan: *nei* ‘nahi’, *horei* ‘orain’; baina gure testuan *aitu* ‘entzun, aditu’ dator, zeina gure apez Javier Loperenak berak euskaratu zuen katiximak *aitu* baitakar: *gaizqui projimo launas ez erran, eta ain guti eitu aren faltaic*.

Erakusleen aldaerak: *gau*, *gori*, *gontan*, *gala*.

Hitz aldaerak: *arrazio*, *baia*, *inmiteko*, *neskako* –XX. mendeko Aezkoan *nesako* disimilatua entzuten zen eta egun ere hala da–, *tabarna*.

Adizkiak: *daie* ‘doa’, *tugu* ‘ditugu’.

Berezia da *gerla* aldaera; Ipar Euskal Herrikoen antzera, Zaraitzun ere *gerla* baliatzen zen XX. mendean, baina guk Aezkoan *gerra* entzun ohi dugu;



1828ko gure testuak erakusten du beharbada iraganean gauzak ez zirela XX. mendean bezala.

Berezia da *bekala* eta *bekanbat* aldaeren gaia ere: idazkiak *becala* & *becala*<sup>la</sup> –baita *beca* ere– eta *becanbat* erak dakartza, baina orriko euskal testuaren transkribapenean aldaketak egin ziren: *bezala*, *bezambat*, *bezala* eta *becala* eman zituen kopiatzaileak. Arazoa grafikoa dela pentsa baliteke ere, orrian *hizan* ‘izan’ eta *lezaqui* ‘lezake’ idatzi izanak erakusten digu *becala* eta *becanbat* eretan herskari ahoskabe belarra egoteko, hau da *k* egoteko aukera, handia dela. Erronkariko *bikala* eta *bikainbat* & *bekinbat* gogorazten dizkigu, gainera, nahiz Zaraitzun *bezala* & *beza(i)nbat* egiten zen. Ordea, Aezkoatik hain urrun ez den Eguesibarren *bekala* eman ohi zuen Joakin Lizarraga idazleak XVIII-XIX. mendeetan; Beriainek XVII.ean nagusiki *beçala* ibiltzen zuen, baina behin *becala* darabil *Tratado*-an: *Iauna dē becala* (9v); bestalde, *bekala* dago Olatzagutiko testu zahar batean eta Muruzabalgo XVIII. mendeko eskuizkribuetan ere *becala* ageri da. Ergoienean *bekela* ibili izan dute.

Nolanahi den ere, hitz honen Aezkoako aldaeren berri gehiago beharko genuke ziurtasun amfibi baten edukitzeko eta izatez bada horretarik. Bonapartek 1866ko ibilaldi zientifikoan Ariben *bezala* bildu zuen eta XIX. mendeko idatzizko Aezkoako euskaran *bezala* nagusi da; behin ageri da *bekala*, Orbara herriko katixima batean: *gauren projimo laguna gauren buruac-becala trata dezagula* (5). Bonaparteren bilduman 130.a da katixima hau eta ez dugu datu handirik noizkoa den esateko, nahiz 1835 eta 1862 datak darmatzan eskuz idatzirik. Orbarako idazki horretan, 16 aldiz *bezala* ageri da eta behin baizik ez *becala*. Baliteke XIX. mendean *bekala* aldaera Aezkoan galbidean abiaturik egotea eta han edo hemen arrasto zenbait utzi izana; Orbarako katixima honetan, esaterako, eta baita 1828ko gau iskanbilatsu hartako orrian ere. Orri ospetsu hartan datozen *becala* eta *becanbat* hauek erakusten digute, Orbarako katiximan ageri den salbuespenezko *becala* adibidea ez dela huts grafiko bat; cf. Camino 1991 (947, 11. oharra)<sup>4</sup>, non huts grafikoaren aukerari ematen baikenion egiantzekotasun gehien, baina oraingo datu honek ez du orduko gure interpretazioa laguntzen.

## LARRAINE 1817

Irati oihanean aspaldian aritu izan dira lanean zuhaitzen zura baliarazteko, ondotik zureriatako ibiltzeko. Garraiatzeko ibaiaren emaria baliatu izan da XX. mendean ongi sarturik egon arte, Zaraitzuko adineko hondarreko euskaldunei entzuten genienez. Zaraitzu ugaldeko zubiaz honela zioskuten Espartzan: *zubi korrek baleki erraten, zer almadia igaretzen zren!* Orbaizetan *barrankeátzea* deitzen zutenaren berri ere eman ohi digute, egurrei heltzeko gizonak Irati ugaldeko ur hotzean sarturik, osasunaren kaltegarri frankotan.

Zaraitzu ibarreko Otsagabiko jaun batek *Moso Bezunartea* izeneko enpresa zuen XIX. mendean, Iratin, Agoitzen eta Iruñean jarduten zuena. Lantegi horren garai bateko gutuneriak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ondarea osatzen du egun; bertara iritsi eta Iruñeko campusean dago, ongi gorderik. Gutun ugari horien artean euskaraz idatzitako bat ager-

<sup>4</sup> «Aezkerazko testuak (II): Orbarako dotrinak», *ASJU*, 25/3, 1991, 929-960.



tu da, Zuberoako Larrainetik Otsagabira 1817ko abuztuaren 3an igorria. Gutun llabur honen berri Patxi Salaberri Zaratiegi filologoak eman digu, ohi duen eskuzabaltasunaz.

Iduri luke gutuna Larraineko Herriko Etxeko idazkariak Otsagabikoari idatzi ziola, *Celhay* izeneko batek *Senor Ferrando Ochoua y Fabre* deitzen duenari, hain zuzen ere. Itxuraz, adostasunik gabeko sos auzi ttiki bat darabilte. Gutuna idatzi bezperan, Otsagitik Larraineko idazkariari idatzi omen zitzaion, adieraziz jende txiro batzuek Otsagabiko herriari gastu batzuk ordaintzeko eskatzen ziotela. Larraineko idazkariak kontatzen dio Otsagikoari, galdegin bezala, sei larraintarrek eta bi goardak, Zuberoa eta Zaraitzu arteko mugara, Iturtzetako lepo edo gainera jo zutela, baina ez zirela zaraitzuarrak zuberotarrekiko hitzordura agertu. Otsagabiak lekuko gehiago eskatu zituela eta berriz ere hitzordua eginik, zuberotarrak agertu zirela, baina zaraitzuarrak huts egin zutela. Lekukoak ordaintzeaz denaz bezainbatean, Larraineko idazkari dirudienak diotso Otsagabikoari *ordenarioz esquatzen duenaq behar ditu pagatu*. Adierazten dio sarri joanen dela *Espanalat* eta kontu horiez guztiez mintzatuko direla.

Hein batez gutunak halako kutsu iluna du, garai hartako idazkari haiek zuten hainbat argibide inplizitu eskas baitugu guk orain mezuaz osoki jabetzeko. Gutunean *ladronnaq* hitza ageri baita –adiera ‘lapurra’-rena baldin bada, eta ez, esaterako, azerikeria edo maltzurkeriarena–, balirudike hartara, bazter haietan ebasle batzuk ibili zirela eta hauek atzemateko edo ezagutzeko lekukoak eta zaindariak behar izan zirela, eta bortura balizko gaizkile haien bila jo zuten gizonei sosa nork ordaindu behar zien erabakitzeko ez zegoela guztizko adostasunik, baina gauzak xuxen honela gertatu zirela jakiteko edo idazkia guztiz ulertzeko, datu osagarri zenbait gehiago beharko litzateke.

Zernahi ere den, nabarmena da eskuen artean mugako euskal idazki bat daukagula, herri mugakideetako idazkari euskaldunen artean ibiltzekoa. Darabilen euskara ez da ez Larraineko mintzamodu zuberotar garbia, ezta Otsagabiko *uskara* garbia ere, mugako gutunek ukan ohi duten komunikazio interdialektalaren kutsua du hein handian, eskualde bateko eta besteko euskal mintzoa nahasi ohi duena. Areago esan liteke, Zuberoa eta Zaraitzu eskualdeen hedadura geografikoa puskan gainditzen duten aldaerak ageri dira idazki honetan.

Hona Iruñeko Unibertsitate Publikoko eskuizkribuen ondarearen bildumategian egin dugun transkribapena:

### Larraineko testua

Larrau, 3 de Agosto 1817

Mi estimado Senor Ferrando Ochoua  
y Fabre

Rezebitu dut atzo zuq escribatu carta  
çointan erraten baituzu gente paubriaq  
direla çouri escatzen dutenaq gastouaq  
Badaquizu nola esquatu zintuen  
Iturtzetara emendiq guiçonaq sey herrico eta bi  
guarda etzinen atera hitz eman bezala  
bortuan eguna passaturiq zueq ez aterra  
eta jua ziren Itzalzura bi egun passatu

zuten zuq igorri gabez ladronnaq; eta  
gastouaq niq pagatu ditut bi egunetaco  
eta hemenguaq eta orano biharamunian  
Liguira igorzeco badira 55 pezeta eta 13<sup>s</sup>.  
Berriz esquatü zinautan 6 edo 8  
testigo <sup>bortuala</sup> etorri ninzan sey testigorequy  
nihaur bortuala etzinen atera ez çu ez  
commessarioric eguna han passatu guinuen  
egorri nituen Ochagavira gau berceo  
adituriq commessariouaq colpatu cela  
eta testigouaq etzintien pagatu niq  
paga nitzala erran ceniran<sup>5</sup> eta igorry,  
nahi zinuque aren çuq esquatü  
testigouaq eta niq paga ditzadan  
Ez ez çuq behardituçu pagatu  
berzela etzintien behar esquatü,  
ordenarioz esquatzen duenaq behar  
ditu pagatu, eta etorzen nizanian  
minzatuco guira gauza guziez fite  
etorrico naiz Espanalat

Eta çoure Cerbitzary  
Celhay

Gutunaren buruan honakoa ageri da:

Ochag  
D<sup>n</sup> Ferrando Ochoua  
D<sup>s</sup>G<sup>e</sup>. M<sup>s</sup>. A<sup>s</sup>.  
A Ochagavia  
Juan

### Balizko interpretazio bat

Rezebitu dut atzo zuk eskribatu karta, zointan erraten baituzu jente paubriak direla zuri eskatzen dutenak gastuak. Badakizu nola eskatu zintuen Iturtzetara emendik gizonak, sei herriko eta bi guarda. Etzinen atera hitzeman bezala. Bortuan eguna pasaturik, zuek ez atera eta jua ziren Itzalzura; bi egun passatu zuten, zuk igorri gabez ladronak. Eta gastuak nik pagatu ditut bi egunetako eta hemenguaq eta orano biharamunian Ligira igorzeco badira 55 pezeta eta 13<sup>s</sup>. Berriz eskatu zinautan 6 edo 8 testigo. Bortuala etorri nintzan sei testigoreki nihaur. Bortuala ez zinen atera ez zu ez komesariorik. Eguna han pasatu ginuen; egorri nituen Otxagabira gau berceo aditurik komesariuak kolpatu zela. Eta testiguak etzintien pagatu, nik paga nitzala erran zeniran, eta igorri, nahi zinuek aren zuk eskatu testiguak eta nik paga ditzadan. Ez, ez, zuk behar dituzu pagatu, berzela etzintien behar eskatu. Ordenarioz, eskatzen duenak behar ditu pagatu, eta etorzen nizanian mintzatuko gira gauza guziez. Fite etorriko naiz Española.

Eta zure zerbitzari  
Zelhai.

<sup>5</sup> Izan liteke *ceniren* ere, ez dago garbi *a* ala *e* den.

Balirudike hor *ladronnaq* eta Otsagi hein batez lotzen direla, baina ez dakigu «zuk ladronak igorri gabe» den ala «zuk ladronak gaeuz igorri» ote den, ala *ladronnaq* diren «bi egun passatu zuten»-ak. Bada beste alderdi ilun bat ere: *gau berzeo*, interpreta bailiteke hurrengo gauerako edo beste gauerako igorri zituela; ez jakin.

Jarraian testuan ageri denaz hizkuntza ohar eta datu batzuk dakartzagu:

Euskal hitz edo aldaerak: *atzo* / *behar* / *berzela* ‘bestela’ / *berriz* / *bezala* / *bi* / *biharamun* / *bortu* ‘goi mendia’ / *edo* / *egun* / *eta* / *ez* / *gabez* (ez dago garbi ‘gaeuz’ edo ‘gabe’ + instrumentaleko atzizkia den) / *gau berzeo* (hauek ere ez daude batere garbi, «gau bertzeko» edo zer idatzi nahi zen; gainera, garai hartako Zuberoan *beste* itxaron liteke, baina idazkia muga artekoa denez, ezin jakin) / *gauza* / *gizon* / *guzi* / *hemenguak* & *emendik* / *han* / *herri* / *jente* / *juan* / *nahi* / *nola* / *orano* ‘oraindik’ / *sei* / *zerbitzari*.

Aditzak: *aditu* / *atera* / *egorri* & *igorri* / *erran* / *eskatu* / *etorri* / *hitz eman*<sup>6</sup> / *min(t)zatu*.

Mailegu berriskoak: *eskribatu* / *fite* ‘laster’ / *gastu* / *guarda* / *karta* ‘gutuna’ / *kolpatu* ‘zauritu’ / *komesario* & *komisario* / *ladron*<sup>7</sup> / *ordenarioz* ‘komunzki, ohiz’ / *pagatu* / *pasatu* / *paubre* ‘txiroa’ / *pezeta* / *rezebitu* / *testigo*.

Izenordain eta erakusleak: *nik* & *nihaur* / *zu* & *zuk* & *zure* & *zuri* / *zuek* / *zointan* / *aren* (ez dago argi «haren» erakusle genitiboa den, adiera destinatiboa lukeena eta agerraldi honetan *h* gabe legokeena, ala *arren* ‘beraz’ ondoriozko partikula den).

Adizkiak

Izan: *nizanian* & *naiz* / *direla* & *badira* / *gira* / *ninzan* / *zela* / *etzinen* / *ziren*.

Edun: *dut* & *ditut* / *duenak* & *ditu* / *baituzu* & *dituzu* / *dutenak* / *ginuen* / *zuten* / *nituen* / *zintuen* & *etzintien* / *zinuke*.

\*Eradun: *zinautan* & *zeniran*.

\*Ezan: *ditzadan* / *nitzala*.

Jakin: *badakizu*.

Leku izenak: *Espana* / *Iturzeta* / *Itzalzu* / *Ligi* / *Ochagabi(ra)* & *Ochagavia*.

Ezagun du testu honetan badirela ez Zuberoako eta ez Zaraitzuko diren aldaerak; ez dakigu Larraineko idazkariak Larrainekoaz bestelako mintzoa egin nahi izanari zor zaion, zaraitzuarrek hobeki ulertuko zutelakoan, ala beharbada idazkaria sortzez baxenabartarra zelako edo zergatik den, baina idazkiko hainbat eta hainbat aldaera ez dira Larrainekoak. Hona hitz eta aldaeretan, garai hartako Larrainen nekez entzun zitezkeen batzuk: *atera*, *berzela*, *biharamun*, *etorri*, *gau*, *gauza*, *hemenguak* & *emendik*. Dena den, arestiko horien aski iduriak ziren Zaraitzuko orduko erabilerak, *etorri* aditza izan

<sup>6</sup> Larrasketek *hitzaman* dakar Barkoxen (1939), baina XVIII. mendeko Maisterrek eta XIX-ko In-txauspek *hitzeman*.

<sup>7</sup> Ez dakigu xuxen garai batez nola zen, baina egun, *ladrón* biraoetan ibiltzen da, esaterako Aezkoan: euskaraz maltzuraren adieran *mutiko ladrón gori!* erakoetan; honelako adibideak Hiriberrin, Orbaran eta Orbaizetan bildu ditugu guk. Erdaraz, berriz, *Cauen diez, ladrón!* eran ibiltzen da Aezkoan. Dena den, baliteke gure testuko *ladronnaq* lapurrak izatea, zaindaria edo lekukoak zerbaitetarako eskatu baitzituzten, baina guk ez dakusagu pasarte hau batere garbi. Ez da *ladron* ageri Aitor Aranaren Zaraitzuko hiztegian (2001), ezta Zuberoako Jean Larrasketenean ere (1939).

ezik; baliteke aldaeron agerpena Zaraitzuko mintzoaren izaerak agindurik etortzea, esaterako *berzela* aldaeraren kasuan, edota *zuek* izenordainarenean.

Adizkietan, berriz, *naiz* ez litzateke ez Zuberoakoa ezta Zaraitzuko ere; ez ziren Larrainekoak *ditut*, *duenak*, *dutenak*, *ginuen* ‘genuen’, *zuten*, *nituen*, *zintuen* ‘zenituen’ (*etzintien* ‘ez zenituen’ gehixeago hurbilduko litzaioke Intxauspek 1858an dakarren *ziintian* aldaerari), ezta *zinuke* ere (Intxauspek *ziinuke* dakar), baina orduko Zaraitzun, *tut*, *duenak*, *ginuen*, *nituen*, *zinok* entzun zitezkeen. Berebat, Nor Nori Nork saileko *zinautan* eta *zeniran* ere ez ziren ohikoak garai hartako Larraineko alderdietan; XX. mendearen bukaeran *zeneitan* & *zeneitaziin* bildu ziren herri honetan eta Intxauspek XIX.ean *zeneitan* dakar Zuberoarako; garai hartako Zaraitzun *zinadan* ibiltzen zen.

Iduri luke Larrainetik idazten zuen gure Zelhai honek euskaraz irakurtzen usatua behar zuela, izan ere, gutunean ageri diren hizkuntza-ezaugarrien geografia hedadura zabala da. Hango eta hemengo euskaldunek ulertzeko modukoa da idatzi zuen testua, ez da orduko zuberotarren edo orduko zaraitzuarren euskara; Nafarroa Garaiko ekialdeko nahiz Ipar Euskal Herri zabalako euskaldunen mintzoa gogoan izanik idatzia dela dirudi.

#### LABURPENA

*Bi testu llabur Aezkoa eta Zuberoako: Garralda (1828) & Larraine (1817)*

XIX. mendeko bi euskal testu llabur dakartzagu argitara. Lehena 1828koa da eta Aezkoako Garraldan idatzi bide zen. Apezak herriko gazteekin iskanbila zenbait eduki zuen eta horien ondorioz, apezari ahalkeizungarri iruditu zitzaion orri bat erantsi zioten etxeko saihtetan. Apezak auzitara jo zuen eta orduan euskaraz idatzitako orri hura, Iruñeko auzi bateko dokumentazio idatzian ageri da; aetzek orduan idatzi euskal lerro bakanen iruzkina dakargu. Bigarren testua mugakoa da, Larrainetik Otsagabira 1817an idatzia: bortuan bilaketan ibili ziren gizon batzuei ordaindu behar zaiela eta, sosa Larrainek ala Otsagabiak ezarri behar duen da auzia. Larrainetik idazten duenak argi dakusa gizonen galdea egin zuen Otsagabiari dela sos horien ordaintzea.

**Gako hitzak:** arazo grafiko-fonikoak; arazo semantikoak; leialtasun dialektala; mugako testu komunikatibo interdialektalak.

#### RESUMEN

*Dos textos breves de Aezkoa y Zuberoa: Garralda (1828) y Larraine (1817)*

Publicamos dos textos breves pertenecientes al siglo XIX. El primero data de 1828 y se escribió en Garralda, valle de Aezkoa. Parece ser que el abad tuvo algunas diferencias con las mozas y mozos del pueblo; a causa de ello, alguien puso un pasquín en una esquina de la casa del cura; el texto del pasquín se escribió en vasco. El contenido escandalizó al abad, quien denunció los hechos y estos derivaron en un proceso judicial. La documentación sita en el Archivo de Pamplona muestra el pasquín de Garralda, cuyas formas lingüísticas comentamos. El segundo texto versa sobre asuntos administrativos y sobre gastos de los pueblos de Larrau (País de la Soule) y Ochagavía (Navarra), sitios en el límite de ambas provincias en una zona muy abrupta. Se escribió en 1817 de Larrau a Ochagavía solicitando dinero para pagar a hombres y guardas de Larrau que fueron al monte por solicitud hecha desde Ochagavía. El texto trata sobre quién ha de pagar los costes de las batidas.

**Palabras clave:** problemática gráfico-fónica; problemática semántica; lealtad dialectal; textos comunicativos interdialectales fronterizos.

## RÉSUMÉ

*Deux petits textes d'Aezkoa et de la Soule: Garralda (1828) et Larraine (1817)*

Nous publions deux petits textes appartenant au dix-neuvième siècle. Le premier date de 1828 et a été écrit à Garralda, vallée d' Aezkoa. L'abbé du village, avait eu, paraît-il, quelques différences avec les filles et les garçons du village, ce que fit que quelqu'un a affiché un texte satyrique sur le mur de la maison du prêtre. Le texte a été écrit en basque. Le contenu a choqué l'abbé, qui a dénoncé l'incident, ce qui a abouti à une poursuite judiciaire. La documentation trouvée dans les archives de Pampelune montre le texte de Garralda, dont on analyse les formes linguistiques. Le second texte s'occupe de questions administratives et de frais des villages de Larraine (Pays de Soule) et Ochagavía (Navarre), situés sur la frontière des deux provinces, dans une zone extrêmement escarpé. Il fut écrit en 1817, pour solliciter de l'argent pour payer les hommes et les gardes qui ont été envoyés de Larraine à la montagne à la demande d'Ochagavía. Le texte discute qui devrait payer les coûts de l'opération.

**Mots-clés:** problèmes graphiques et phoniques; fidélité dialectale; problèmes de sémantique; textes transfrontaliers de communication interdialectale.

## ABSTRACT

*Two short texts from Aezkoa and Soule: Garralda (1828) and Larraine (1817)*

We publish two short texts belonging to the nineteenth century. The first one dates from 1828 and was written in Garralda, Aezkoa Valley. It seems that the local abbot had some differences with the young girls and boys of the village and, as a consequence, someone stuck a satirical poster on the wall of the priest's house. The text was written in Basque. The contents of it shocked the Abbot, who reported the incidents to the authorities. That resulted in a prosecution. The documentation located in the Archives of Pamplona shows the Garralda text, whose linguistic forms are here discussed. The second text deals with administrative matters and expenses of the villages of Larrau (province of Soule) and Ochagavía (Navarra), situated in the boundary of these two provinces, in a very rough and steep area. It was written in 1817 and sent from Larrau to Ochagavía asking for money to pay the wages of some men and guards of Larrau who were sent to the hills at Ochagavía's request. The text discusses who should pay the costs of the searching.

**Keywords:** graphic and phonic problems; semantic problems; dialect loyalty; cross-border interdialect communicative texts.